

Bizkaia aurrera mikroredituak!

Xedea (1. oinarria)	Autonomoei sostengua ematea beren negoziok mantendu, kontsolidatu eta iraunkortzeko ahaleginean, eta haien bidelagun izatea jarduera ekonomikoa lehengoratu, merkatuan kontsolidatu eta lanpostuei eusteko prozesuan, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ostean.
Pertsonas y erakunde onuradunak (3. oinarria)	Eskabidea aurkeztean besteak beste ondoren zehazten diren baldintzak betetzen dituzten autonomoak, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak : <ul style="list-style-type: none"> ✓ 2020/03/13 baino lehenagotik izena emanda egotea LAABen edo mutualitate baliokideren batean. ✓ 2020/03/13 baino lehenagotik izena emanda egotea ekonomia-jardueren gaineko zergan. ✓ Autonomoen kasuan: 2019an sorturiko etekin garbiek 20.000 € baino gutxiago izan behar dute. ✓ Ondasun-erkidego edo sozietate zibil baten kasuan: 2019an sorturiko etekin garbiek 20.000 € baino gutxiago izan behar dute haiek osatzen dituzten pertsona bakoitzeko. ✓ 2019an Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda dagoen pertsonalaren gastuak 15.000 € baino gehiago izatea. ✓ Gehienez ere 5 enplegu izatea kontrataturik lanaldi osoan edo era baliokideren batean 2020/03/13an. ✓ Sozietatearen helbidea, zerga-helbidea eta ekoizpen-zentro bat Bizkaian izatea. Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzeari dagozkionak. <div style="float: right; margin-top: 10px;"> <i>2020/12/31 baino lehen berrezarri behar dira.</i> </div>
Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak (4. eta 10. oinarriak)	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda dagoen pertsonalaren gastuak (ordainsari gordina + eskatzailearen kargurako Gizarte Segurantzaren kuota). ✓ Negozio-lokal baten errentamendua. ✓ Zeharkako gastuak (segurtasun jarduerak barne).
Bateraezintasuna (12. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> ❖ Mikroreditu hauek bateraezinak dira ELKARGIk edo ICOK abalaturako maileguekin, baldin eta dekretu honek finantzaturako gastuekin bat badatoz epeetan eta COVID-19ren krisiari aurre egiteko badira.
Mikroredituen ezaugarriak (5. eta 6. oinarriak)	<ul style="list-style-type: none"> – Laguntzak mikroredituak izango dira. – Mikroredituaren zenbatekoa finantza daitezkeen gastuen% 100 da, eta 7.500 euro emango dira gehienez ere pertsona edo erakunde onuradun bakoitzeko. – Zor den mikroredituaren printzipalak ez du interesik sortuko, maileguaren iraunaldi osoan aplikatu beharreko tasa urteko nominalaren % 0,00 izango da (UTB % 0,00). – Mikroreditua, guztira, 5 urterako ematen da. – Urtebeteko gabealdia ezartzen da mikroreditua amortizatzeko. – Lehen itzulketa 2021/09/30ean egingo da. – Gainerakoak hiru hilerik behin egingo dira, hiruhileko natural bakoitzaren amaieran. – Mikroredituaren amortizazioa ondoz ondoko 16 amortizazio-kuotatan egingo da, hiru hilerik behin, eta haietariko bakoitza emandako zenbatekoaren % 6,25 izango da. – Mikroreditutik ordaintzeke dauden kuota guztiak alde aurretik amortizatu ahal izango dira, ordainketa bakarrean.
Dokumentazioa (8. eta 17. oinarriak)	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Eskabide telematikoa (eskabidea egiteko inprimakira sartu aurretik, ESEPEn inskribatzeko behar diren datuak eskatzen ditu sistemak). ✓ Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orrian eskuragarri dagoen eredu ofizialaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira. ✓ Langile autonomoen erregimen bereziaren antzeko mutualitate batean 2020ko martxoaren 13an alta emanda egotea justifikatzen duen dokumentazioa, hala badagokio. Adibidez mutuaren ziurtagiria, 2020ko martxoko hilabeteko ordainketa-agiria...
Burutzeko epea (5. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> ❖ Gastuak 2020. urtean egin beharko dira.
Araudia eta emakida prosedura (18. oinarria)	55/2020 Foru Dekretua, ekainaren 9koa. (BAO, 2020ko 110 zenbakia, ekainaren 11koa). Konkurrentzia librearen araubidea jarraituz ematen dira mikroredituak: eskariak jaso ahala banatzen dira funtsak, erregistroko sarrera-zenbakiaren hurrenkeraren arabera, betiere deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta aurrekontuko zuzkidurek ahalbidetzen duten arte.
Eskabideak aurkezteko epeak (7. eta 17. oinarriak)	2020/06/15eko 08:30etik 2020/09/30eko 13:30era. Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean (http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual). Horretarako, sinadura elektronikoa izan behar da (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...) edo B@k nahiz B@kQ ziurtagiri elektronikoen bitartez sartu.